

TXINGUDIKO PADURA

Egilea: Mikel Estonba
Argazkiak: Gorka Gorospe & Rafa Sainz

TXINGUDIRI buruz gutxi idatzi bada ere, gaur egun Gipuzkoako ingurune heze garrantzitsuentzat jotzen da, Euskal Herri mailan, Urdai-bairen atzetik bigarrena delarik. Hala ere, mantentze aldetik Urdai-bairen egoera Txingudirena baino hobea izan arren, bi lekuetako hegazti-espezieen kopurua aztertuta, Txingudikoa handiagoa dela egiaztatu da. Azkeneko datu hau kontutan hartuz, beharrezkoa da Txingudiri buruzko informazio sakonagoa aurkeztea, orain arte


jasan duen axolagabekeria ekidin eta bere hondamenari aurre egiteko. Ezin dugu ahaztu, gainera, Txingudi garrantzi internazionalako ingurunetzat onartu dutela erakunde askok. Hauen artean aipamen berezia merezi dutenak, hiru dira: Slinbridgeko (Inglaterra) International Waterfowl Research Bureau, Frantziako B.I.R.O.E. eta Madrileko "Federacion de Amigos de la Tierra" delakoa.


Xehetasunak eman baino lehen, agian komenigarria litzateke estua-

rioen garrantzia zertan datzan aipatzea, ingurune hauek defendatzeko sortu diren mugimenduak ulertu ahal izateko. Estuarioren garrantzia bi faktore nagusiotan oinarrituta dago:

- Estuarioetan, ur gezak (kontinentalak) eta gaziak (itsasokoak) nahasten direnez, paduretako

Txingudiko
ikuspegi
orokorra,





landarediak eta faunak, gazitasun aldakorreko baldintzetara moldatu behar izan du, garrantzi ekologiko handiko espezieak sortuz.

Ibai-dinamikaren ondorioz, bestalde, estuarioetan elikagai eta materia organikoaren metaketa handia dago, ekosistema hauek produktibitatea oso altua izanik. Hau katea trofiko abera-

tsentzat mesedegarri da, eta horixe litzateke hegazti migratzaile ugari egotearen arrazoia.

Ezaugarri hauek ezezik, beste zenbait faktore ere kontutan hartu behar dira Txingudin, bere garrantzia ulertu ahal izateko:

- Ingurune hauek gure kostaldean jasan dituzten eraso gogorrek

kontutan hartuta, Gipuzkoan nahikoa ondo kontserbaturik gelditu den azkeneko padura da Txingudi (Zumaia ahaztu gabe, noski). Honek eragin zuzena du hegazti migratzaileengan; atsedeen-lekuak bilatzeko gero eta distantzia luzeagoak zeharkatu behar bait dituzte.

- Bestalde, Txingudi migrazio-ardatz garrantzitsu batean ko-

katuta dago; Pirinioak iragan ezineko barrera bihurtzen bait dira. Beraz, Pirinioak eta Bizkai-ko golkoak inbutu-efektua sortzen dute hegazti-migrazioan, inbutu horren zuloan Txingudi kokatuta dagoelarik.

Padura

Txingudin aurki ditzakegun ekosistemarik erakargarrienak, padura eta hondartza lirateke. Azkeneko hau beste baterako utziko dugu, eta orain Txingudiko padura aztertzen saiatuko gara.

Gipuzkoako padurarik garrantzitsuena den hau, hiru zatitan bana daiteke. Ez naturalki horrela delako; gizakiaren eraginez banatuta gelditu delako baizik. Hiru zati hauek Bidasoako irlak, Plaiaundi eta Jaizubia, eta Beltzenia ingurua dira.

Bidasoako irlak

Lehenengo zatia, Bidasoa ibaiak Jaizubia errekarekin bat egin aurretik azaltzen dituen Hiru Kanale, Galera eta Santiago Aurrera irlez osatuta legoke. Irla hauek ibaiak ekarritako materialez osatuta daudenez, ez dira estatikoak; etengabe lur-galera eta emari berriak jasotzen ari bait dira. Gainera mareen eraginez egunero bi aldiz lurzati handiak urperatuta gelditzen direnez, irla hauetako landaredi eta fauna gazitasun- eta ureztapen-baldintza aldakorretara moldatu dira, paduretako espezie tipikoak agertzen direlarik.

Landaredi hau neurri handi batean belar-espezieez osatuta dago. Ugarienak Juncaceae (ihiak), Gramineae (lastodunak) eta Cyperaceae (papiroak) familietako espezieak dira.

Hala ere, itsas mareek eta ibaian aldika gertatzen diren uholdeek irla hauen zati desberdinetan duten eraginaren arabera, padura bi zatitan bana daiteke: lehenengoa, beherago kokatuta dago eta horregatik, sarritan urperatuta gelditzen da. Bigarrena, aldiz, gorago dagoenez, lehorragoa da eta ez da hain maiz urperatuta geratzen.

Desberdintasun honen ondorioz, bi zati hauetan aurki ditzakegun landaredi halofiloaren espezieak (gazitasun handiko baldintzeara moldaturiko espezieak) ere,

Branta musubeltz bikotea (*Branta bernicla*).



Lertxun hauskara (*Ardea cinerea*).



desberdinak dira. Hots, sarritan urperatuta gelditzen den lautadan behatutako espezie garrantzitsuenak honako hauexek dira: *Salicornia g. europaea*, *Aster tripolium*,

(*Cistirola juncielis*).

*Arenaria
maritimaren
arrastoak.*

potik ekarritako *Baccharis halimifolia* espezieaz osatuta bait dago. Espezie honek, irletara ekarri zutenez geroztik, hedapen handia lortu du, gaur egun bere hazkuntza kez-kagarria delarik padurari eutrofizazio-arazoak sor bait diezazkioke.

Landaredi halofilo honek duen berezko garrantzia ezezik, estuario honetan deskribatutako landare-espezie ugari Gipuzkoa osoan beste inon ez dela agertu kontutan hartuz, padura hau mantentze eta berreskuratzearen garrantzia ulertuko da. Ornitologi ikuspegitik Txingudik duen erakarpina ahaztu gabe, noski.

Irla hauen landaredia aztertu ondoren, ezinbestekoa da animaliak aztertzea, Txingudiko hegaztien deskribapenean sakonduz; alderdi honek erabaki bait du Txingudi garrantzi internazionalako ingurunezat onartzea.

Lehen aipatu dugunez, estuarioen ezaugarri bereziek ekosistema hauen produktibitatea altua izaten laguntzen dute, katea trofiko aberatsak sortuz. Horregatik, katea hauen lekukorik ikusgarrienak hegaztiak badira ere, ezin da ahaztu katea hauen oinarria limo eta uretan bizi diren poliketo, molusku, krustazeo eta beste zenbait ornogabe dela; hauek bait dira hegazti eta arrainen dieta osatzen duten elikagaiak.

Hala ere, elikadurarako ingurune bezala, irlek ez dute badiako beste zenbait tokik (Plaiiaundik,

Beltzeniak, eta abarrek) duten garrantzia, baina irla hauek duten isolamenduari esker, hegaztiak behar duten atsedentokirik egokien bihurtu dira.

Oro har, Txingudiko hegaztiak bi taldetan bana daitezke: habiagile eta migratzaile taldetan, portzentaiarik handiena migratzaileek osatzen dutelarik (% 90). Hala ere, Bidasoako irlen isolamendu-baldintzak direla eta, gizakiaren presioa txikiagoa da eta horrixek esker da habiagileen portzentaia handiagoa.

Habiagileen artean honakoak aipa ditzakegu: lezkariak (*Acrocephalus sp.*), benarriak (*Locustella sp.*), errekatxindorra (*Cettia cetti*), etab. Hala ere, lehen aipatu bezala dibertsitate handiena migratzaileengan aurkitzen da, gehienak negukoak direlarik. Hauen artean aipatzekoak dira: zingira-berdantza (*Emberiza schoeniclus*), txantxangorria (*Erithacus rubecula*), martin arrantzalea (*Alcedo atthis*), usapal arrunta (*Streptopelia turtur*), galeperrak (*Coturnix sp.*), hegabera (*Vanellus vanellus*), etab.


Bestalde, limikoloen (limoetan elikatzen diren hegaztien) presentzia ere nabaria da, baina estuarioaren beste zenbait tokitan handiagoa denez, hegazti hauek geroago aztertuko ditugu.

Urri, baina agian garrantzi handiagok, sarritan agertu izan dira irla hauetan kurrilo arrunta (*Grosgus*), lertxun hauskara (*Ardea cinerea*), mokozabala (*Platalea leucorodia*), basahatea (*Anas platyrhynchos*), zertzeta arrunta (*Anas crecca*), kopetazuri arrunta (*Fulica atra*), uroilola (*Gallinula chloropus*), uroilanda handia (*Rallus aquaticus*), uroilandak (*Porzana sp.*). Azkenik, ezin ditugu aipatu gabe utzi urte osoan zehar Txingudin agertzen den zenbait kaio-espezie: kaio hauskara (*Larus cachinnans*), kaio iluna (*Larus fuscus*), eta antxeta mokogorria (*Larus ridibundus*).

Plaiiaundi eta Jaizubia

Jaizubia eta Mendelu errekek Bidasoa ibaiarekin elkartzen diren

Ezkerrekoa, *Txirritxoa*
(*Charadrius hiaticula*)
Eskuinekoa, *Txirria*
(*Calidris alpina*).



Spergularia media eta *Spartina* jenetroko zenbait espezie, denak egunean zehar ordu ugari urpean bityzeko moldatuta daudenak.

Gorago, itsas mareen eragina txikiagoa denez, aldaketak ez dira hain bortitzak eta honek espezie gehiago ager dadin laguntzen du. Hala nola *Juncus maritimus*, *Scirpus maritimus*, *Halimione portulacoides*, etab.

Landaredi-azterketa honetan ezin utz liteke aipatu gabe garrantzi ekologiko handia duten lezkadien (*Phragmites communis*) ugaritasuna; bai Bidasoako irletan, bai Plaiiaundi eta Jaizubian. Lezkadi hauek beharrezkoak dira hegazti-espezie ugari elikatuko eta ugalduko bada.

Aipamen berezia merezi du irla hauetako zuhaiska-geruzak; kan-



puntua, Plaiaundi izenaz ezagutzen da. Gaur egun hondamen-egoera laman badago ere, ornitologi ikuspegitik tokirik garrantzitsuenetarikoa da. Azken urte hauetan Irungo udalaren axolagabekeriaren eraginez, eraso gogorak jasan ditu; hala nola padura-zati handiak kontrolik gabeko betelanez bidez sistematikoki lehorteza, edo bertan kokatutako bi enpresen dragatu ilegala. Azken puntu honen barruan, honakoa aipatu behar da: orain dela 20 urte inguru enpresa hauek Plaiaundi aurrean zegoen 4 hektareako limo-irla bat desagerterazi egin zutela, limikoloen elikadurarako alderdirik inportanteena zelarik.

Gaur egun dragatzen segitzen dute, irla hori berreskuratzea ezinezkoa da, harik eta ekintza hori bertan behera usten ez den bitartean.

Hala eta guztiz ere, Plaiaundik gorde duen lezkariko zenbait inguruetan, landare hauen artean bitzitera moldaturiko zenbait hegazti-espezie ikustea ez da zaila izaten. Gauza bera gertatzen da Jaizubia erreka ertzetan kontserbatu diren lezkadietan, hauen garrantzia, bailara honetan giza-presioa txikiagoa dela handiagoa delarik kontutan hartzen badugu.

Bi eskualde hauetako lezkadietan habia egiten duten zenbait hegazti-espezie E.A.E.an Txingudin izan ezik beste inon ez daude. Habiagileen artean ondokoak aipatu-

**Uroiloak
(Gallinula
chloropus).**



ko ditugu: lezkariak (*Acrocephalus* sp.), uroiloak (*Gallinula chloropus*), uroilanda handia (*Rallus aquaticus*), benarrizak (*sylviidae* familia-ko espezie batzuk), etab. Baina lezkadi hauen garrantzia ez da habiagileengan amaitzen; zenbait migratzaileentzat ere, atsedene- eta elikadur-leku bihurtzen bait dira migrazio-garaietan. Horregatik sarritan ikus ditzakegu papaurdinak (*Luscinia svecica*), istingor txiki eta arruntak (*Lymnocyrtus minimus* eta *Gallinago gallinago*), martin arrantzaleak (*Alcedo atthis*), uroilandak (*Porzana* sp.), etab.

Lezkadi hauen garrantzia nabaria bada ere, ezin esan daiteke ingurune honen erakarpen bakarra denik; bertan sortzen diren limo-hondartzak beharrezkoak bait dira zenbait arrain eta hegaztiren elikadurarako. Lehen aipatu dugunez,

limo hauek elikagai eta materia organikoaren kontzentrazio handia dute, bertako produktibitate biologikoa altua izanik. Honen ondorioz inguru hauetan aurkitzen ahal ditugun ornogabe eta ornodunen populazioak inportanteak dira. Arrainei dagokienez, limo-hondartza hauek estaltzen dituzten uretan estuario gazieta arrain tipikoak agertzen dira: itsas-amuarraina (*Salmo trutta trutta*), lupina arrunta (*Dicentrarchus labrax*), platuxa (*Platichthys flesus flesus*), korrokoa (*Chelun labrosus*), haitzetako barbarina (*Mullus sormuletus*), ibai-aingira (*Anguilla anguilla*), etab.

Hegaztien barruan, hiru motako hegaztiak aurkituko ditugu: limikoloak, anatioak (beltxargak, aha-teak eta antzarak) eta arrantzaleak (elikaduratzat bertako arrainak dituztenak).



**Atzean,
Ubarroiak
(Phalacrocorax
Garbo).
Aurrean,
Txirri grisa
(Plurialis
squatrola).**



Baccharis halimifolia.

hazkuntza azkarra dela eta, urte gutxitan belar hauek estaltzen duten azalera nabarmen handitu da, padura finkatzea lortuz. Aipatzekoa da, bestalde, padura honen itsasoarekiko hurbiltasuna dela eta, denbora luzez urperatuta bizitzeko moldatuta dagoen *Zostera noltii* belar-espeziea, Txingudi osoan hemen bakarrik aurki daitekeelarik.

Baina Beltzeniako erakargarriena, bertan ikus daitezkeen hegaztiak dira; inguru honetan aurkitzen bait dute beharrezko elikadura eta, batez ere, beste tokietan aurkitzen zaila den lasaitasuna. Horregatik azken urte hauetan, Beltzenia bihurtu da hegaztiak ikusteko alderdirik egokiena.

Txinguditik pasatzen diren hegazti guztiek irla honetan aurki dezakete beren migrazioetan beharrezkoa den atsedena; normalean

Lehenengoan artean ugariena honakoak dira: txirriak (*Calidris* sp. eta *Pluvialis* sp.), bernagorriak eta kulixkak (*Txinga* sp. eta *Limosa* sp.), kurlintak (*Numenius* sp.), txiritxoak (*Charadrius* sp.), etab. Hauen artean normala izaten da antxeta mokogorri (*Larus ridibundus*) taldeak aurkitzea.

Anatidoen artean, aldiz, aipagarriak dira Anser (antzarak), Tadorna (paitak), Anas (ahateak eta zertzetak), Aythya (murgilariak) jeneroetako espezieak. Arrantzaleen barruan aurki ditzakegun hegaztiak ardeidae (lertxun eta lertxuntxoak) familiako espezieak dira.

besteko zeregina badu ere, ezin da ondoko paduraren garrantziarekin konparatu; bertan elikatzen bait da Txinguditik pasatzen den hegazti-proportziorik handiena.

Botanikaren ikuspegitik, irla eta paduraren arteko desberdintasunak ere nabariak dira: irlako

Beltzeniako limoak eta Txori-irla.



Txori-irla eta Beltzeniako limoak

Hendaiako arrantza-portua eraikitzeke dragatu zuten materialekin, Beltzenia inguruan Txori-irla izeneko hondar-irla eratu zuten. Honen ondorioz, inguruko korronteen dinamika aldatu egin zen, irlaren inguruan Txingudiko hegaztientzat garrantzi ikaragarria duen Beltzeniako padura sortu zelarik. Horregatik, irla honek hegaztientzat atsedan-leku gisa ezin-

landaredia dunetako zenbait espezie ezik belar eta zuhaiska errudelarek osatuta dagoen bitartean, padura Bidasoako irletarako aipatu ditugun belar-espezie halofiloek osatuta dago, hauen artean ugariena, *Spartina* jeneroko espezie batzuk direlarik. Espezie hauen

inguru honetan giza presioa padurako beste tokietan baino txikiagoa bait da.

Irlaren hondar-ertzetan mota askotako limikoloak ezezik, laridae (kaioak eta antxetak) familiako zenbait espezie, mokoabalak (*Platylea leukorodia*), ubarroiak (*Phalacrocorax Garbo*), txenadak (*Sterna* sp.) eta anatidoen espezie ugari ere azaltzen da. Irla erdiko belar-alderdian, aldiz, ez da zaila izaten ardeidae (lertxun eta lertxuntxoak) familiako zenbait espezie, istingorrrak (*Gallinago* sp.), zingira-hontza (*Asio flammeus*) eta zenbait passeriforme lurtar-txirtak (*Anthus* sp.) hegatzabalak (alaudidae), etab. ikustea. Gainera, kurlinta handia (*Numenius arquata*) eta bernagorri arrunta (*Txinga totanus*) espezieetako aleek azken urte hauetan neguan irla lo-toki gisa erabili dutela frogatu da.

Lezkadia (*Phragmites communis*). Bidasoako irlak.





Plaiiaundiko betelanak.

Beltzeniako limoek betetzen duten funtzioa, aldiz, Bidasoako irlentan eta ondoko irlan atsedena aurkitzen duten hegaztien elikadura-beharrak asetzea litzateke, hegazti hauen artean limikoloak eta anati-doak ugarienak direlarik. Txingudi osoko hegaztien espezie-dibertsitate handiena limo hauetan azaltzen dela esan daiteke; Europako limikolo-espezie guztiak deskribatu bait dira. Dibertsitate handieneko garaia arakatu ondoko migrazioarekin batera izaten dira; neguan, berriz, dibertsitatea jeisten bada ere, espezie bakoitzeko ale-kopurua handiagotu egiten da.

Bukatzeko, aipatzea merezi duten eta Beltzenian ikusitako zenbait hegazti-espezie azalduko dugu; gutxitan ikusten bait dira gure padurretan. Honako hauek lirateke nagusiak: amiamoko beltza (*Ciconia nigra*), mokozabala (*Platalea leucorodia*), branta musubeltza (*Branta bernicla*), lertxuntxo txikia (*Egretta garcetta*) eta arrano arrantzalea (*Pandion haliaetus*).

Erasoak

Txingudiko paduraren garrantzi biologikoa aztertu ondoren bururatzten zaigun lehenengo gauza ingu-

rune pribilegiatu honen kontserbazio eta berreskurapena bultzatu behar dela bada ere, aipatzekoa da padura honen etorkizuna benetan latza dela; instituzioen asmo on guztiak burutu ez dituzten proiektuetan alferrik galdu bait dira.

1983. urtean, Eusko Jaurlaritzaren aginduz, Aranzadi zientzi elkarteak Txingudi sakon aztertu zuen. Bertan, Bidasoa ibaiako padura berreskuratzea eta kontserbaziorako neurriak proposatzen ziren.

Proiektu horrek, ordea, ez zuen aurrera egin eta Txingudiko hondamenak aurrera segitu zuen instituzioen axolagabekeriaren eraginez. 1989. urtean, zenbait mugimendu ekologistaren presioa zela eta, Irungo udalak Eusko Jaurlaritzari honakoa proposatu zion: alegia, beste berreskurapen-proiektu bat egin zezala, Aranzadikoa zaharkitua gelditu bait zen, zazpi urtetan estuarioak eraso gogorak jasan zituen eta.

Oraingoan, Ingemisa enpresa arduratu da proiektua lantzeaz. Hasiera batean Irun herrirako soilik zen. Baina Irungo padura berreskuratzeke proiektu horrek proposatu zituen neurrien harrera ona kontutan hartuz, Hondarribia herrira zabaldu zen, estuarioaren eremu zabalagoa harturik.

Hala ere, proiektu honen lehenengo pausoak emateko garaia iritsi arren, berriro oztopo burokratikoekin topo egin du; Irungo udalak proiektuari bere baietza oraindik ez bait dio eman, atzerapen horrekin Europako Komunitateak Txingudi berreskuratzeke emandako diru-laguntza galtzeko arriskuan egonik.

Bien bitartean, Plaiiaundi aldeko dragatuak aurrera segitzen dute. Hain zuzen, padurako lurzati handiak lehortzen ari dira betelan inkontrolatuen bidez. Irun eta Hondarribia herrien ur-saneamendu ezak, kutsadura nabarmena eragiten die padurako limo eta urei. Hondarribian eztabaidan dago Jaizubia aldean industri poligono bat eraiki ala ez. Irunen Gipuzkoako Bidasoa ibaiaren zatiari kalte ikaragarriak ekarriko dizkion ZAISAko garraio-terminala zabalitzea onartu da. Badia osoari aldaketa bortitzak ekarriko dizkioten Hondarribia eta Hendaian kirol-portuak eraikitzeke proiektuak aurrera atera bide dira ...

Triste da benetan Gipuzkoako azken paduraren etorkizuna.